



# 2024ko GARIZUMA

PLANETA ALDATZEKO GAI  
DEN ESPEZIE BAKARRA

GIZAKI-EFEKTUA

Haur eta familientzako  
jardueren koaderno



**Begiratu argazkiari: Zer ikusten duzu?  
Zer pentsatzen duzu? Zergatik?**

**Urtero-urtero, 10 milioi hektarea baso suntsitzen dira;  
ia-ia 16 milioi futbol-zelai bezainbeste.**

**Zer iruditzen zaizu?**

**Manos Unidas**  
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

**Borondatezko Barauaren Eguna**  
2024ko otsailaren 9a, ostirala

**Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala**  
2024ko otsailaren 11, igandea



# GARIZUMAKO OTOITZAK

## Garizumako I. astea

Jesus Jauna, zu basamortura joan zinen otoitz egitera. Erakutsi mundua zaintzen, bertako fruitu eta ondasunak pertsona guztiengatik izan daitezenez, eta ez dadin urik eta elikagairik gabeko eremu idor bihurtu.

## Garizumako II. astea

Jesus, ikus zaitzagula gure inguruan dauzkagun pertsonengan, eta batez ere behartsuenengan. Maita zaitzagula gure beharrez daudenei lagunduz, xalotasunez eta pozez.

## Garizumako III. astea

Jesus maitea, benetako bizitzara eramaten gaituen bidea zara. Ikas dezagula daukaguna partekatzen eta gutxiagorekin bizitzen, mundua ez hondatzeko eta gizaki guztiak bizitzeko behar dutena izateko.

## Garizumako IV. astea

Jesus, zure bizia eman zenuen gu guztiok bizitzeko. Lagundu gu ere besteek ardura gaituzen, eskuzabalagoak izan gaituzen eta gure etxea den planeta zaindu dezagun.

## Garizumako V. astea

Jauna, ez dugu geurekoiak izan nahi; ez dugu dena geuretzat gorde nahi. Besteekin egotea eta gauzak besteekin partekatzea gustatzen zaigu, horrela bizipoza ematen baitiegu.

## ERRAMU-IGANDEA

Naturak «aleluia!» abesten du, eta guk bat egin nahi dugu bere kantuarekin. Jesusen lagun garenok zaindu egin behar dugu natura, horrela izaki bizidunen eta gizakien bizitza babesten dugulako, batez ere kalteberenak direnenak.

## MAHAIA BEDEINKATzea


Eskerrik asko, Jauna, janari honengatik, hemen bildu garenongatik eta bidean laguntzen diguten guztiengatik. Bedeinkatua zu, Aita, maite gaituzulako eta zaintzen gaituzulako. Beti izan gaituzela zurekin esker oneko, eta beti eman diezaiegula besteei eta naturari zuk ematen diguzun maitasuna. Amen.





# ZAINDU NATURA

Katekesian ikusi dugunez, Jainkoak egin digun oparirik onenetako bat natura da. Izaki bizidun guztiok, gizakiok barne, denona den etxe horretan bizi gara. Etxe hori garbia eta ondo zainduta eduki behar dugu. Lagundu nahi al diguzu natura zaintzen, horrela gizakien bizitza eta ingurumena babestu ahal izateko?



## AURKITU EZBERDINTASUNAK

- ▲ Fotokopiatu eta banatu paisaia garbia eta paisaia zikina duten marrazkiak.
- ▲ Orriak begiratu eta hitz egin haietako bakoitzean ikusten denari buruz.
- ▲ Aztertu ingurumena zaintzeari dagokionez ekintza desegokiak erakusten dituen orria.
- ▲ Adierazi beste orrian ageri diren ekintza desegokiak.
- ▲ Margotu ekintza zuzenak erakusten dituen orria eta mural bat osatu.
- ▲ Adierazi zer egin beharko litzatekeen inguru hori egoera onean eta ondo zainduta egoteko.
- ▲ Ekintza bat aukeratu.

## BOKALEN IHESA

Esaldi hauetako bokal batzuk joan egin dira. Osatuko al dituzu esaldiak? ?

- **ESKOLARA AUTOBUSEZ EDO METROZ JOATEN BAGARA, GURE OSASUNA ETA BESTEENA ZAINDUKO DUGU, GUTXIAGO K\_TS\_T\_K\_ DUGULAKO.**
- **ARGIAK BEHAR EZ DITUGUNEAN ITZALI EGITEN BADITUGU, ENERGIA \_\_RR\_ZT\_K\_ DUGU.**
- **HONDAKINAK EDUKIONTZI EGOKIETAN SARTZEN BADITUGU, HOBETO Z\_\_ND\_K\_ DUGU GURE PLANETA.**

## HITZ EZKUTUAK

### MESALCOMETBEMURRIZTUFARCARELKONPONDUSIM

Bilatu ingurumena zaintzeko oso garrantzitsuak diren bi hitz.

M							
							U



# ELKARTASUN-HISTORIAK



## India

Nire izena **Nandini** da eta Indiako herrixka txiki batean bizi naiz. Bertan bizi garenok adivasiak gara. Ez gara besteak bezalakoak; gizartean baztertuta gaude. Etxean ez daukagu elektrizitaterik, eta eskolan ere ez; horregatik, ezin dugu gauza handirik ikasi. Manos Unidasek eguzki-panelen sistema bat jartzen lagundu digu, eta orain elektrizitatea daukagu etxeetan eta eskolan. Horri esker, orain besteak beste ordenagailuak erabil ditzakegu.

**Nandinik zergatik ez zuen ordenagailurik erabiltzen? Zer energia-mota erabili dute eskolan elektrizitatea eduki ahal izateko? Pentsatu nola izango litzatekeen zure bizitza herrixka horretan biziko bazina.**

## Honduras

Ni **Marineli** naiz eta Hondurasen bizi naiz. Honduras Ameriketako herrialderik behartsuenetako bat da. Nire herrian lehen ezin genuen urik edan, arropa ekoizteko fabrika batek kutsatu egiten zituelako gure iturriak eta gure ibaia. Manos Unidasen laguntzari esker, fabrikak bere hondakinak arazteko instalazio bat jarri du, eta orain ez du urik kutsatzen.

**Zergatik ezin zuen Marinelik ura edan? Zuk zertarako erabiltzen duzu ura egunean zehar? Nola zaintzen duzu ura?**

**Zer egin dezakezu Nandinik, Etiennek eta Marinelik haurtzaro osasungarria izan dezaten eta arazorik gabe aritu daitezen jolasean eta ikasten?**



## Kongo

Ni **Etienne** naiz eta Afrikaren erdialdean bizi naiz, Kongo izeneko herrialde batean. Nire herrialdean mineral asko daude; batez ere, koltan izenekoa. Koltana ordenagailuak, telefono mugikorrek eta tresna elektroniko gehienak egiteko erabiltzen da. Ni eta beste ume asko meatzeetan lanean aritzen gara, zuloak oso txikiak direnez hobeto sartzen garelako, baina arriskutsua da gure osasunerako, eta asko hil egiten dira. Manos Unidasen laguntzari esker, utzi egin dut meatzeko lana eta eskolara itzuli naiz.

**Zertan dira antzekoak zure bizitza eta Etiennerena? Eta zertan dira desberdinak?**

